

«Arantzazu» Probintziako Kapituluak

Joan den irailaren 15etik 20ra ospatu da Arantzazu Probintziako Frantziskotarren Kapituluak. Zalantzarik gabe, Probintziak egiten duen Batzar Nagusia da. Bertan aztertzen da aurreko hiru urtekoan egindako lana eta, inportanteena!, hiru urteko berrirako proiektua zehazten da. Kapituluak azpimarkatzen ditu hiru urtekoan izango diren asmo nagusiak, nabarmendu beharreko alderdiak, burutu beharreko ekintzak, bultzatu beharreko berrikuntzak eta abar.

Aurtengo Kapitulu honetan gehien entzun den hitza «biziberritzea» izan da. «Biziberritze» hori beste hiru hitzi lotua eta haien eskutik dator: Lehenetsi, redimentsionatu eta sozializatu. Hiru hitz hauek bilatzen duten helburua, biziberritzea da.

Dauzkagun indarren neurria, proiektuak lehenetsi egin behar dira, hierarkia baten mailaketan. Garai bateko egitura guztiak gehiegizkoak gertatzen zaizkigu

gaur; beraz, redimentsionatu egin beharko ditugu. Baina, redimentsionatzeak ez du esan nahi eraikinak hutsik uztea, eraikinei helburu sozial bat ematea baizik. Eta horretan ari gara zenbait lekutan dagoeneko.

Baina, hori dena ez da nahikoa izango, gure bokazioa eta gure bizi-proiektua berritzen ez baditugu. Hau da urratsik garrantzizkoena. Azken batean, proiektuak, etxeak eta eginkizun guztiak, gure erlijioso-bokazioa indartu eta Jesusen Berri Ona hobeto zerbitzatzeko dira. Anai biziera, ebanjelizazioa, sozial alorra, bokazio-pastoralta... eta beste guztiak gure bizitzari arnasa emateko dira eta horretara jarri behar dugu frantziskotar guztiok gure bizilekuan. Indarrak eskastuak izan arren, oraindik ere badugu esatekorik eta egitekorik. Eta ilusioa berritu eta hartara jartzea da kontua. Asmo horiekin joan da fraide bakoitza bere komentura, han anaiartean Asisko Txikiaren antzera bizitzeko.

Arantzazuko berriak

Musika Hamabostaldia: Easo eta Kalakan

Berezia izan zen aurtengo Musika Hamabostaldia Arantzazuko Basilikarako gorde zuen kontzertua, izan ere, Easo abesbatza eta Kalakan folk taldea elkartu zituen. Nahiz eta aurtengo emanaldia normalean baino pare bat aste lehenago izan, abuztuaren amaieran beharrean, hilaren 7an, betiko moduan lepo bete zen Basilika. Ordu eta laurdenez ahotsak eta perkusioak bateratu zituzten publikoaren gozamenerako, eta txalo zaparrada jaso zuten trukean. Musika Hamabostaldia Arantzazun urtero-urtero antolatzen duen kontzertua Santutegian izaten den ekitaldirik garrantzitsuenetakoa da kultur mailan, zalantzarik gabe. Eskertzekoa da Musika Hamabostaldia Arantzazuren alde egiten duen lana

Jean Luc Guionnet, organu-jotzailea

Arantzazu betidanik izan da, eta da oraindik, abangoardiako artisten babesleku. Horren erakusgarri da Parisetik gurera iritsitako Jean-Luc Guionnet musikariak Arantzazun uztailean egin zuen aste beteko egonaldia. Guionnet musika elektro-akustikoaren eta inprobisazio askearen alorretan egindako lanarengatik da ezaguna. Espazio arkitektonikoei eta bertan bizi diren soinuei jartzen dien arreta da bere lanaren ezaugarri

nagusienetakoa. Arantzazuko egonaldian egindako lana publikoari ezagutarazteko organo-kontzertua eskaini zuen Basilikan pasa den irailaren 19an.

«Xavier Álvarez de Eulate» II. Pintura-lehiaketa

Irailaren 13an Arantzazuko «Xavier Álvarez de Eulate» Pintura-Lehiaketako bigarren ekitaldia hartu zuen arrakasta handiz. Arantzazuko Adiskideak elkarteak Arantzazu Gaur Fundazioaren laguntzaz antolatutako lehiaketak, hamaika lekutatik iritsitako 26 parte-hartzaile izan zituen helduen kategorian, 31 haurrenean eta bi gazteenean. Epaimahaiak, Edorta Kortadi artekritikoak eta Xabier Egaña, Elena Goñi eta Luis Lascuirain pintoreek osatua, lehen saria Erandioko José Miguel Arranz-i eman zion (1.500€), bigarrena Ermuko Jon Idigorasi (750€) eta hirugarrena Arrasateko Eluska Zabalori (400€). Gazteen mailan Bergarako Sara Balentziaga eta Oñatiko Ines Uriarte izan ziren saridunak, eta haurren artean Iruñeko María Manrique eta Nicolás de la Sota. Horiek denek pintura-material sorta bana eskuratu zuten. Saritutako koadroak, nahiz beste denak, ikusgai izango dira urriaren 11tik azaroaren 2ra bitartean Gandiaga Topagunean. Erakusketa asteburuetan eta jai-egunetan egongo da zabalik 11.00etatik 14.00etara, eta sarrera doakoa izango da.

Arantzazuko berriak

«Amets-kabi» eskultura-erakusketa

Arantzazu Gaur Fundazioak, Arantzazuko Adiskideak elkartearekin elkarlanean, zortzi euskal eskultoreen artelanak biltzen dituen "Amets-kabi" eskultura-erakusketa antolatu du. Artistok honakoak dira: Ricardo Ugarte, José Ramón Anda, José Zugasti, Iñaki Ruiz de Eguino, Iñigo Arregi, Iñaki Olazabal, Koldobika Jaurregi eta Guillermo Olmo. Erakusketako komisario-lanak Xabier Sáenz de Gorbeak egin ditu. Erakusketa Gandiaga Topaguneko Laorga aretoan egongo da ikusgai urriaren 19a arte, ostiraletan eta larunbatetan 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.00etara, eta igandeetan eta jaiegunetan 11.00etatik 14.00etara. Sarrera doakoa da.

Arantzazuko Web gune berritua

Orain arteko www.arantzazukosantutegia.org web guneari aldaketa etorri zaio. Hemendik aurrera www.arantzazu.org web gunean aurkitu ahal izango dituzu Arantzazuri buruzkoak. Betiko edukiei (Santutegiko historiaren, Basilikaren eraikuntzaren eta dekorazioaren, ospakizunen ordutegiaren, Arantzazun lan egiten duten elkarten eta erakundeen gainekoak eta abar), bi atal berri gehitu zaizkie: berriena eta agendarena, Arantzazun izandako eta izan beharreko ekitaldien nondik-norakoa jasotzeko sortuak. Aurrerantzean, Arantzazuko informazio eguneratua izateko jo ezazu Arantzazuko web gune berritua.

Mantenimendu-taldearen lana

Ezin eskertuzkoa da, zinez, Arantzazura hilean behin edo bitan auzolanean aritzeko etortzen den taldearen laguntza. Orain arte garbiketako eta mantenimenduko lan desberdinak egin dituzte (Sindikatik Arantzazuko sarreran dagoen kapera arteko bazterrak eta espaloiak garbitu, Gandiaga Topagunea inguruko bideak garbitu, Misterioko eta Gandiaga Topaguneko aterpeko kristalak garbitu, Gandiaga Topagunea inguruko belardiak moztu eta jaso, eta orogarri-dendaren parean dagoen eserlekua lixatu eta bernizatu eta abar). Taldearen hurrengo hitzordua, etorri nahi duenarentzat deialdi irekia da, urriaren 11, larunbata, izango da, goizeko 9.30ean, Arantzazuko Santutegia Hoteleko kafetegian. Zenbat eta gehiago izan, ordua eta hobeto.

Mendi-irteerak

Arantzazuko Parketxearekin elkarlanean, Arantzazuko Adiskideak elkarteak bete du ia-ia 2014rako prestatutako sei ibaldietatik bakarra falta da. Urriaren 19an, goizeko 9.00etan Parketxetik ekingo dio taldeak biderei kontrabandisten ibilbidea osatzeko. Gainontzeko bost irteerak bezalaxe honakoa ere tematikoa izango da, eta mendi-mugei eta kontrabandismoari buruz gehiago jakiteko aukera izango dute parte-hartzaileek. 2014an zehar egin diren beste ibiladiak eta horietan ikasitako gaiak honakoak izan dira: Duruko lapiaza - Natura eta kultura uztartuz; Uraren bidea - Uraren jatorria eta erabilera; Pin-pil - Petroglifoak; Aloña - Mendia ilunabarrean, eta Aizkorri - Unibertso karstikoa.

ELKARREKIN BILA proiektua burutzen

Bere garaian aurkeztu genuen buletin honetan ELKARREKIN BILA proiektu soziala, eskusio-arriskuan aurkitzen ziren pertsona eta taldeei eskainitako proiektu soziala. Bederatzi talderentzako asmoa genuen aurtengo, eta esan behar dugu dena ongi burutzen ari dela, Jainkoari eskerrak. Jainkoari, eta laguntzeko prest azaldu den hainbat boluntariori.

Proiektua, burutzeko unean dugu dagoeneko. Bederatzi talde horietatik zazpi pasatu dira, eta urrian etortzeko bi talde gelditzen zaizkigu, Bilboko Bizitegi eta Caritas-eko Inklusión Bergara. Pasatu direnak: Bilboko Iralako Jangela, Donostiako Atzegi, Betania Etxea, Laguntza Etxea, Hurkoa Fundazioa, Programa Gitano Irungoa eta oraintxe pasatuberr den Gasteizko Bizitza Berria.

Eguraldiagatik ekitaldi bakarren bat aldatu behar izan baldin bada ere, pentsatutako proiektuak ongi

burutu dira, eta orokorrean, poz handiz joan dira hemen izandako talde guztiak. Hala esan dute behintzat beren ebaluazioetan.

Zenbait adiskide eskertu behar dugu, izan ere ekitaldi bakoitzean boluntarioak izan ditugu, koordinazio-lana egin dutenez gain. Proiektua prestatu eta behar bezala antolatzen lan egin duenik ere izan da, eskertu ezineko lana eginez. Denei gure esker ona erakutsi behar, talde hauek zoriontsu egiteko eskaini duten laguntzagatik.

Dagoeneko, datorren urteko proiektua ere gehienbat pentsatua daukagu. Uste dugu proiektu ederra dela, eta Arantzazuri esku-eskura datorkiona.

Hurrena arte, besarkada.